Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2019ko martxoaren 7a, osteguna — 46 — Jueves, a 7 de marzo de 2019

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## KULTURA, TURISMO, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA

*Kirol arloko diru laguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrak eta espezifikoak, eta 2019ko deialdia.*

Diputatuen Kontseiluak, 2019ko otsailaren 19an egindako batzarraldian, besteak beste, ondoko erabakia hartu du:

Gazteria eta Kirol Zuzendaritza Nagusiaren egitekoak dira, kirolaren alorrean, beste batzuen artean, honako hauek: Gizarte gipuzkoarrean jarduera fisikoa eta kirola sustatzea bizi kalitatea eta osasuna mantendu eta hobetzeko oinarrizko faktore gisa eta identitate eta kohesio sozialeko elementu gisa; Gipuzkoako kirol sistemaren egituraketa eta sistema horretan bildutako kirol eragile guztien lankidetza eta koordinazioa sustatzea; eta kirolean aukera berdintasuna eta eskolako kide guztiak kirola egiten has daitezen sustatzea, derrigorrezko eskolatze aldian, kirola egiteko ohitura biztanleria gipuzkoar guztian heda dadin.

Erabaki honen bidez kirol gaietako dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak onesten dira. Horrela, hartzaile eta xede desberdineko hainbat laguntza-lerro agertzen dira: tokiko entitateei, kirol elkarte eta entitateei eta ikastetxeei kirolaren arloan ematen zaizkien laguntzak, herritarrak aktibatzeko, jarduera fisiko erregularra sustatuz, kirola egiten duten pertsonen kopurua areagotzeko eta maiztasuna handitzeko, batez ere kolektibo ahulenetan.

Halaber, dirulaguntza horien 2019ko deialdia ere onesten da.

Dirulaguntza ildo hauek Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2017-2019 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasota daude.

Horrenbestez, Diputatuen Kontseiluak, Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuko foru diputatuak proposatuta, eta eztabaidatu ondoren,

ERABAKITZEN DU

*Lehenengo.* Onestea kirol gaietako dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrak eta dirulaguntza lerro bakoitzari dagozkion berariazko oinarri arautzaile espezifikoak, honako jarduera ildo hauen arabera:

A) Gipuzkoako toki erakundeei zuzendutako kirol arloko dirulaguntzak:

A.1. Eskola kiroleko tokiko programak eta udalerri txikietako kirol programak.

— A.1.a) Eskola kiroleko tokiko programak gauzatzea.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE CULTURA, TURISMO, JUVENTUD Y DEPORTES

*Bases reguladoras generales y específicas y Convocatoria 2019 de las subvenciones en materia de deportes.*

El Consejo de Gobierno Foral, en sesión celebrada el 19 de febrero de 2019, ha adoptado entre otros el siguiente acuerdo:

La Dirección General de Juventud y Deportes, en el área del deporte, tiene entre sus funciones las siguientes: fomentar en la sociedad guipuzcoana la actividad física y el deporte como factores básicos de la calidad de vida y de la conservación y mejora de la salud así como elemento de identidad y cohesión social; impulsar la estructuración del sistema deportivo guipuzcoano y la colaboración y coordinación de todos los agentes deportivos integrantes de ese sistema; y promover la igualdad de oportunidades en el deporte y el acceso a la iniciación deportiva de toda la población escolar, durante el periodo de escolarización obligatoria, de forma que los hábitos de práctica deportiva se extiendan a toda la población guipuzcoana.

Mediante el presente acuerdo se aprueban las bases reguladoras de las subvenciones en materia de deportes, que contemplan diferentes líneas de subvención, con diversos destinatarios y objetivos: subvenciones en materia de deportes a las entidades locales, a las diferentes asociaciones y entidades deportivas y a los centros escolares que trabajan por una ciudadanía activa, fomentando la práctica regular de actividad física en aras a aumentar el número de personas que la practican y la asiduidad con que lo hacen, especialmente en relación con los colectivos vulnerables.

Asimismo, se aprueba la convocatoria 2019 de dichas subvenciones.

Las presentes líneas de subvención se encuentran incluidas en el Plan Estratégico de Subvenciones 2017-2019 de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

En su virtud, el Consejo de Gobierno Foral, a propuesta del diputado foral del Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes, y previa deliberación,

ACUERDA

*Primero.* Aprobar las bases reguladoras generales del otorgamiento de subvenciones en materia de deportes, así como las específicas correspondientes a cada una de las distintas líneas de subvenciones, conforme a las siguientes líneas de actuación:

A) Subvenciones en materia deportiva destinadas a las entidades locales guipuzcoanas:

A.1. Programas locales de deporte escolar y programas deportivos en municipios pequeños.

— A.1.a) Ejecución de programas locales de deporte escolar.

EK\CV GAO-I-2019-01312

— A.1.b) Aurrebenjamin kategoriako ikasleentzako eskola kiroleko programako jarduketa berriak ezartzea.

— A.1.c) Eskola kiroleko begiraleak erregularizatzea.

— A.1.d) Udalerri txikietako kirol programak.

A.2. Igerian ikastea.

A.3. Desgaitasuna duten pertsonentzako kirol jarduerak.

— A.3.a) Desgaitasunen bat duten eskola-umeentzako kirol jarduerak.

— A.3.b) Desgaitasunen bat duten pertsona helduentzako kirol jarduerak.

A.4. Jarduera fisikoa sustatzeko tokiko programak, gipuzkoarrei zuzenduak.

B) Gipuzkoako kirol klub eta elkarteei zuzendutako kirol arloko dirulaguntzak:

B.1. Gipuzkoako kirol klub eta elkarteak.

B.2. Gazteen artean kirola sustatzeko plana (GKP) ezarri eta garatzea.

B.3. Gipuzkoako arraunketa klubak.

— B.3.a) Trainerudun arraun klubak.

— B.3.b) Trainerurik gabeko arraun klubak, aulki mugikorrean lehiatzen direnak.

B.4. Gipuzkoako txirrindularitza klubak.

B.5. Gipuzkoako euskal pilota klubak.

B.6. Euskal Autonomia Erkidegoko esparrua gainditzen duten lehiaketa ofizialetan parte hartzen duten modalitate kolektiboetako taldeak dituzten Gipuzkoako klubak.

C) Gipuzkoako kirol elkarte eta erakundeek garatzen dituzten hainbat kirol ekintzatara zuzendutako dirulaguntzak:

C.1. Prestakuntza programa ez-arautuak, jarduera fisikoaren eta kirolaren arloan.

— C.1.a) Gipuzkoako Lurralde Historikoan Gipuzkoako kirol federazioek ikastaroak antolatzeko.

— C.1.b) Gipuzkoako Lurralde Historikotik kanpo eskaintzen diren ikastaroetara joateko.

C.2. Kirol materiala erostea.

— C.2.a) Errendimenduko kirolerako materiala.

— C.2.b) Eskola kiroleko kirol materiala kirol federazioentzat.

C.3. Eskola umeek igerian ikasteko sustapen jarduerak.

C.4. Desgaitasuna duten pertsonentzako kirol jarduerak.

— C.4.a) Kirol klubek, desgaitasuna duten pertsonen elkarteek eta irabazi asmorik gabeko beste entitateek antolatutako kirol jarduerak.

— C.4.b) Desgaitasuna duten ikasleei zuzendutako kirol jarduerak, publikoak diren eta ez diren ikastetxeek eta beste entitateek antolatutakoak.

C.5. Kirol mugikortasuna.

— C.5.a) Mugikortasuneko udal planak.

— C.5.b) Parte hartzeko lehiaketa jardueretarako joan-etorriak.

— C.5.c) Infantil, kadete eta gazte mailetako taldekako modalitateetako lehiaketa jardueretarako joan-etorriak.

— A.1.b) Implantación de las nuevas actuaciones del programa de deporte escolar destinadas al alumnado de la categoría prebenjamín.

— A.1.c) Regularización del monitorado de deporte escolar.

— A.1.d) Programas deportivos en municipios pequeños.

A.2. Aprendizaje de la natación.

A.3. Actividades deportivas dirigidas a personas con discapacidad.

— A.3.a) Actividades deportivas dirigidas a escolares con discapacidad.

— A.3.b) Actividades deportivas dirigidas a personas adultas con discapacidad.

A.4. Desarrollo de programas locales de fomento de la actividad física dirigidos a la población guipuzcoana.

B) Subvenciones en materia deportiva destinadas a los clubes y asociaciones deportivas guipuzcoanas:

B.1. Clubes y agrupaciones deportivas de Gipuzkoa.

B.2. Implantación y desarrollo del Plan de fomento del Deporte Juvenil (PDJ).

B.3. Clubes guipuzcoanos de remo.

— B.3.a) Clubes de remo con trainera.

— B.3.b) Clubes de remo sin trainera que compiten en banco móvil.

B.4. Clubes guipuzcoanos de ciclismo.

B.5. Clubes guipuzcoanos de pelota vasca.

B.6. Clubes guipuzcoanos con equipos de modalidades colectivas que participen en competiciones oficiales de ámbito superior al de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

C) Subvenciones destinadas a diversas actividades deportivas desarrolladas por los diferentes entes y asociaciones deportivas guipuzcoanas:

C.1. Programas de formación no reglada en el ámbito de la actividad física y el deporte.

— C.1.a) Organización de cursos en el Territorio Histórico de Gipuzkoa por parte de las federaciones deportivas guipuzcoanas.

— C.1.b) Asistencia a cursos impartidos fuera del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

C.2. Adquisición de material deportivo.

— C.2.a) Material deportivo de rendimiento.

— C.2.b) Material deportivo de deporte escolar para federaciones deportivas.

C.3. Actividades de promoción del aprendizaje de la natación dirigida a escolares.

C.4. Actividades deportivas dirigidas a personas con discapacidad.

— C.4.a) Actividades deportivas organizadas por los clubes deportivos, asociaciones de personas afectadas y/u otras entidades sin ánimo de lucro.

— C.4.b) Actividades deportivas para escolares con discapacidad organizadas por centros escolares públicos, no públicos y otras entidades.

C.5. Movilidad deportiva.

— C.5.a) Planes municipales de movilidad.

— C.5.b) Desplazamientos a las actividades de competición de participación.

— C.5.c) Desplazamientos a las actividades de competición en las modalidades colectivas de las categorías infantil, cadete y juvenil.

C.6. Aparteko kirol lehiaketak antolatzea.

C.7. Gipuzkoako federazioek garatutako mugaz gaindiko kirol proiektuak.

Oinarri arautzaile orokor eta espezifiko horiek erabaki honen I. eranskin gisa doaz.

*Bigarren.* Onestea aipatutako laguntzen 2019. ekitaldiko deialdia, erabaki honen II. eranskin gisa doana.

*Hirugarren.*

1. Baimentzea bi milioi berrehun eta berrogeita lau mila (2.244.000,00) euroko gastua deialdiari aurre egiteko, partida hauen kargura:

A) Gipuzkoako toki erakundeei zuzendutako kirol arloko dirulaguntzak:

— A.1. eranskina.

1 0220.210.461.01.01 2019: 690.000,00 euro.

— A.2. eranskina.

1 0220.210.461.01.03 2019: 125.000,00 euro.

— A.3.eranskina.

A.3.a).

1 0220.210.461.01.04.2019: 20.000,00 euro.

A.3.b).

1 0220.210.461.01.06.2019: 10.000,00 euro.

— A.4. eranskina.

1 0220.210.461.01.02.2019: 55.000,00 euro.

B) Gipuzkoako kirol klub eta elkarteei zuzendutako kirol arloko dirulaguntzak:

— B.1. eranskina.

1 0220.210.481.00.62.2019: 410.000,00 euro.

— B.2. eranskina.

1 0220.210.481.00.69 2019: 206.000,00 euro.

— B.3. eranskina.

1 0220.210.481.00.72.2019: 260.000,00 euro.

— B.4. eranskina.

1 0220.210.481.00.65.2019: 65.000,00 euro.

— B.5. eranskina.

1 0220.210.481.00.64.2019: 15.000,00 euro.

— B.6. eranskina.

1 0220.210.481.00.68.2019: 60.000,00 euro.

C) Gipuzkoako kirol elkarte eta erakundeek garatzen dituzten hainbat kirol ekintzatara zuzendutako dirulaguntzak:

— C.1. eranskina.

1 0220.210.481.00.63 2019: 20.000,00 euro.

— C.2. eranskina.

C.2.a).

1 0220.210.481.00.66.2019: 30.000,00 euro.

C.2.b).

1 0220.210.481.00.50.2019: 30.000,00 euro.

— C.3. eranskina.

1 0220.210.481.00.48.2019: 65.000,00 euro.

— C.4. eranskina.

C.4.a).

1 0220.210.481.00.75.2019: 20.000,00 euro.

1 0220.210.481.00.76.2019: 10.000,00 euro.

C.6. Organización de competiciones deportivas de carácter extraordinario.

C.7. Proyectos de deporte transfronterizo desarrollados por las federaciones guipuzcoanas.

Estas bases reguladoras generales y específicas se adjuntan al presente acuerdo como anexo I.

*Segundo.* Aprobar la convocatoria correspondiente al ejercicio 2019 de las citadas ayudas, que se adjunta al presente acuerdo como anexo II.

*Tercero.*

1. Autorizar un gasto por importe de dos millones doscientos cuarenta y cuatro mil (2.244.000,00) euros para hacer frente a dicha convocatoria con cargo a las siguientes partidas:

A) Subvenciones en materia deportiva destinadas a las entidades locales guipuzcoanas:

— Anexo A.1.

1 0220.210.461.01.01 2019: 690.000,00 euros.

— Anexo A.2.

1 0220.210.461.01.03 2019: 125.000,00 euros.

— Anexo A.3.

A.3.a).

1 0220.210.461.01.04.2019: 20.000,00 euros.

A.3.b).

1 0220.210.461.01.06.2019: 10.000,00 euros.

— Anexo A.4.

1 0220.210.461.01.02.2019: 55.000,00 euros.

B) Subvenciones en materia deportiva destinadas a los clubes y asociaciones deportivas guipuzcoanas:

— Anexo B.1.

1 0220.210.481.00.62.2019: 410.000,00 euros.

— Anexo B.2.

1 0220.210.481.00.69 2019: 206.000,00 euros.

— Anexo B.3.

1 0220.210.481.00.72.2019: 260.000,00 euros.

— Anexo B.4.

1 0220.210.481.00.65.2019: 65.000,00 euros.

— Anexo B.5.

1 0220.210.481.00.64.2019: 15.000,00 euros.

— Anexo B.6.

1 0220.210.481.00.68.2019: 60.000,00 euros.

C) Subvenciones destinadas a diversas actividades deportivas desarrolladas por los diferentes entes y asociaciones deportivas guipuzcoanas:

— Anexo C.1.

1 0220.210.481.00.63 2019: 20.000,00 euros.

— Anexo C.2.

C.2.a).

1 0220.210.481.00.66.2019: 30.000,00 euros.

C.2.b).

1 0220.210.481.00.50.2019: 30.000,00 euros.

— Anexo C.3.

1 0220.210.481.00.48.2019: 65.000,00 euros.

— Anexo C.4.

C.4.a).

1 0220.210.481.00.75.2019: 20.000,00 euros.

1 0220.210.481.00.76.2019: 10.000,00 euros.

EK\CV GAO-I-2019-01312

C.4.b).

1 0220.210.440.09.01.2019: 13.000,00 euro.

— C.5. eranskina.

1 0220.210.481.00.49.2019: 100.000,00 euro.

— C.6. eranskina.

1 0220.210.481.00.85.2019: 30.000,00 euro.

— C.7. eranskina.

1 0220.210.481.00.88.2019: 10.000,00 euro.

2. Hala ere, C.2. eranskineko laguntzak gastu arruntetarako nahiz inbertsioetarako eman daitezkeenez, jasotzen diren eskaerak ikusi, eta gastua zer motatakoa den jakin ondoren, beharrezko aurrekontu egokitzeak izapidetuko dira, aipatutako eranskinerako aurreko atalean adierazitako partiden artean eta VII. kapitulutik dagozkienen artean, emango diren laguntzak egingo den gastuaren izaerarekin bat etor daitezen.

*Laugarren.* Erabaki honen bidez onetsitako oinarri arautzaileek ondorioak izango dituzte Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen diren egunetik aurrera.

Erabaki hau behin betikoa da, eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, erabakia argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da hori.

Donostia, 2019ko otsailaren 25a.—Ana Urkola Aranburu, idazkari teknikoa. (1312)

I. ERANSKINA

OINARRI ARAUTZAILE OROKORRAK

*1. Xedea.*

Oinarri hauen helburua da herritar aktiboagoen alde lan egiten duten toki erakundeei, kirol elkarte eta erakundeei eta ikastetxeei zuzendutako dirulaguntzak arautzea. Elkarte horiek jarduera fisikoa modu erregularrean egitea bultzatzen dute, jarduera fisikoa egiten duten pertsonen kopurua eta jardueraren maiztasuna handituz joan dadin, bereziki kolektibo ahulenen artean.

Laguntzak jarraian jasotako entitate eta modalitateen arabera banatuko dira. Laguntzak emateko oinarri arautzaile espezifikoak eranskin gisa gehitu dira:

A) Gipuzkoako toki erakundeei zuzendutako kirol arloko dirulaguntzak:

A.1. Eskola kiroleko tokiko programak eta udalerri txikietako kirol programak.

— A.1.a) Eskola kiroleko tokiko programak gauzatzea.

— A.1.b) Aurrebenjamin kategoriako ikasleentzako eskola kiroleko programako jarduketa berriak ezartzea.

— A.1.c) Eskola kiroleko begiraleak erregularizatzea.

— A.1.d) Udalerri txikietako kirol programak.

C.4.b).

1 0220.210.440.09.01.2019: 13.000,00 euros.

— Anexo C.5.

1 0220.210.481.00.49.2019: 100.000,00 euros.

— Anexo C.6.

1 0220.210.481.00.85.2019: 30.000,00 euros.

— Anexo C.7.

1 0220.210.481.00.88.2019: 10.000,00 euros.

2. No obstante, por lo que respecta a las ayudas del anexo C.2, dado que las mismas pueden financiar gastos corrientes o de inversión, a la vista de las solicitudes recibidas y en función del tipo de gasto, se tramitarán las adaptaciones presupuestarias que resulten procedentes entre las partidas señaladas para dicho anexo en el apartado anterior y las que correspondan del capítulo VII, a fin de adecuar las ayudas a conceder a la naturaleza del gasto subvencionado.

*Cuarto.* Las bases reguladoras que se aprueban en virtud del presente acuerdo surtirán efectos desde el mismo día de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Lo que se publica para general conocimiento.

San Sebastián, a 25 de febrero de 2019.—La secretaria técnica, Ana Urkola Aranburu. (1312)

ANEXO I

BASES REGULADORAS GENERALES

*1. Objeto.*

Es objeto de las presentes bases la regulación del otorgamiento de subvenciones en materia de deportes a las entidades locales, a las diferentes asociaciones y entidades deportivas y a los centros escolares que trabajan por una ciudadanía más activa, fomentando la práctica regular de actividad física en aras a aumentar el número de personas que la practican y la asiduidad con que lo hacen, especialmente en relación con colectivos vulnerables.

Las ayudas se distribuirán de acuerdo con las diferentes entidades y modalidades que seguidamente se indican, y cuyas bases reguladoras específicas de concesión se acompañan como anexos:

A) Subvenciones en materia deportiva destinadas a las entidades locales guipuzcoanas:

A.1. Programas locales de deporte escolar y programas deportivos en municipios pequeños.

— A.1.a) Ejecución de programas locales de deporte escolar.

— A.1.b) Implantación de las nuevas actuaciones del programa de deporte escolar destinadas al alumnado de la categoría prebenjamín.

— A.1.c) Regularización del monitorado de deporte escolar.

— A.1.d) Programas deportivos en municipios pequeños.


EK\CV GAO-I-2019-01312

A.2. Igerian ikastea.

A.3. Desgaitasuna duten pertsonentzako kirol jarduerak.

— A.3.a) Desgaitasunen bat duten eskola-umeentzako kirol jarduerak.

— A.3.b) Desgaitasunen bat duten pertsona helduentzako kirol jarduerak.

A.4. Jarduera fisikoa sustatzeko tokiko programak, gipuzkoarrei zuzenduak.

B) Gipuzkoako kirol klub eta elkarteei zuzendutako kirol arloko dirulaguntzak:

B.1. Gipuzkoako kirol klub eta elkarteak.

B.2. Gazteen artean kirola sustatzeko plana (GKP) ezarri eta garatzea.

B.3. Gipuzkoako arraunketa klubak.

— B.3.a) Trainerudun arraun klubak.

— B.3.b) Trainerurik gabeko arraun klubak, aulki mugikorrean lehiatzen direnak.

B.4. Gipuzkoako txirrindularitza klubak.

B.5. Gipuzkoako euskal pilota klubak.

B.6. Euskal Autonomia Erkidegoko esparrua gainditzen duten lehiaketa ofizialetan parte hartzen duten modalitate kolektiboetako taldeak dituzten Gipuzkoako klubak.

C) Gipuzkoako kirol elkarte eta erakundeek garatzen dituzten hainbat kirol ekintzetara zuzendutako dirulaguntzak:

C.1. Prestakuntza programa ez-arautuak, jarduera fisikoaren eta kirolaren arloan.

— C.1.a) Gipuzkoako Lurralde Historikoan Gipuzkoako kirol federazioek ikastaroak antolatzeko.

— C.1.b) Gipuzkoako Lurralde Historikotik kanpo eskaintzen diren ikastaroetara joateko.

C.2. Kirol materiala erostea.

— C.2.a) Errendimenduko kirol materiala.

— C.2.b) Eskola kiroleko kirol materiala kirol federazioentzat.

C.3. Eskola umeek igerian ikasteko sustapen jarduerak.

C.4. Desgaitasuna duten pertsonentzako kirol jarduerak:

— C.4.a) Kirol klubek, desgaitasuna duten pertsonen elkarteek eta irabazi asmorik gabeko beste entitateek antolatutako kirol jarduerak.

— C.4.b) Desgaitasuna duten ikasleei zuzendutako kirol jarduerak, publikoak diren eta ez diren ikastetxeek eta beste entitateek antolatutakoak.

C.5. Kirol mugikortasuna.

— C.5.a) Mugikortasuneko udal planak.

— C.5.b) Parte hartzeko lehiaketa jardueretarako joan-etorriak.

— C.5.c) Infantil, kadete eta gazte mailetako taldekako modalitateetako lehiaketa jardueretarako joan-etorriak.

C.6. Aparteko kirol lehiaketak antolatzea.

C.7. Gipuzkoako federazioek garatutako mugaz gaindiko kirol proiektuak.

*2. Dirulaguntza hauen entitate onuradunak.*

1. Oinarri hauetan arautzen diren dirulaguntzen hartzaile izan daitezke dirulaguntzaren oinarri den jarduera egin behar

A.2. Aprendizaje de la natación.

A.3. Actividades deportivas dirigidas a personas con discapacidad.

— A.3.a) Actividades deportivas dirigidas a escolares con discapacidad.

— A.3.b) Actividades deportivas dirigidas a personas adultas con discapacidad.

A.4. Desarrollo de programas locales de fomento de la actividad física dirigidos a la población guipuzcoana.

B) Subvenciones en materia deportiva destinadas a los clubes y asociaciones deportivas guipuzcoanas:

B.1. Clubes y agrupaciones deportivas de Gipuzkoa.

B.2. Implantación y desarrollo del Plan de fomento del Deporte Juvenil (PDJ).

B.3. Clubes guipuzcoanos de remo.

— B.3.a) Clubes de remo con trainera.

— B.3.b) Clubes de remo sin trainera que compiten en banco móvil.

B.4. Clubes guipuzcoanos de ciclismo.

B.5. Clubes guipuzcoanos de pelota vasca.

B.6. Clubes guipuzcoanos con equipos de modalidades colectivas que participen en competiciones oficiales de ámbito superior al de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

C) Subvenciones destinadas a diversas actividades deportivas desarrolladas por los diferentes entes y asociaciones deportivas guipuzcoanas:

C.1. Programas de formación no reglada en el ámbito de la actividad física y el deporte.

— C.1.a) Organización de cursos en el Territorio Histórico de Gipuzkoa por parte de las federaciones deportivas guipuzcoanas.

— C.1.b) Asistencia a cursos impartidos fuera del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

C.2. Adquisición de material deportivo.

— C.2.a) Material deportivo de rendimiento.

— C.2.b) Material deportivo de deporte escolar para federaciones deportivas.

C.3. Actividades de promoción del aprendizaje de la natación dirigida a escolares.

C.4. Actividades deportivas dirigidas a personas con discapacidad.

— C.4.a) Actividades deportivas organizadas por los clubes deportivos, asociaciones de personas afectadas y/u otras entidades sin ánimo de lucro.

— C.4.b) Actividades deportivas para escolares con discapacidad organizadas por centros escolares públicos, no públicos y otras entidades.

C.5. Movilidad deportiva.

— C.5.a) Planes municipales de movilidad.

— C.5.b) Desplazamientos a las actividades de competición de participación.

— C.5.c) Desplazamientos a las actividades de competición en las modalidades colectivas de las categorías infantil, cadete y juvenil.

C.6. Organización de competiciones deportivas de carácter extraordinario.

C.7. Proyectos de deporte transfronterizo desarrollados por las federaciones guipuzcoanas.

*2. Entidades beneficiarias de estas subvenciones.*

1. Tendrán la consideración de beneficiarias de las subvenciones reguladas en las presentes bases las personas jurídi-


EK\CV GAO-I-2019-01312

duten edota dirulaguntza jasotzeko zilegi egiten duen egoeran dauden pertsona juridikoak: oinarri espezifikoen eranskin bakoitzean ezarritakoaren arabera, betiere.

2. Entitate eskatzaileek oinarri orokor hauekin batera doazen eranskinen artean dagokien eranskinean jasotako baldintzak bete beharko dituzte, eta, onuradun izaera eskuratzeko, ezingo dute izan Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko 3/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, 12. artikuluaren 2., 3. eta 4. apartatuetan, eta, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko 2/2015 Foru Arauak, martxoaren 9koak, 26. artikuluan aurreikusitako inongo debekurik.

3. Dirulaguntzen onuradun izateko ezarritako debekuek eragiten ez dietela egiaztatzeko dirulaguntzaren eskaerarekin batera erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ahal izango da, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuko Gazteria eta Kirol Zuzendaritza Nagusiaren ereduaren arabera.

Edonola ere, zerga obligazioak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatze aldera, entitate interesdunak dagokien organoek egindako ziurtagiriak aurkeztu behar ditu; edo horren ordez, baimena eman ahal izango du espresuki informazio hori aipatutako organoek zuzenean Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuari laga diezaioten.

Hala ere, toki erakundeei zuzendutako dirulaguntzen kasuetan, atal honen lehenengo paragrafoan aipatzen den erantzukizunpeko adierazpen horrek zerga obligazioak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete izana frogatzeko ziurtagiriak ordeztuko ditu, hala aurreikusten baitu, 11.5 artikuluan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen Foru Arauaren Erregelamenduak, zeina onetsi baitzuen 24/2008 Foru Dekretuak, apirilaren 29koak.

*3. Dirulaguntzetarako eskaerak aurkezteko modua eta epea.*

1. 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 14.2 a) artikuluan xedatutakoaren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren erregistro elektronikoaren bidez soilik (https://egoitza.gipuzkoa.eus) aurkeztuko dira eskaerak eta dagokion gainerako dokumentazioa, «dirulaguntzen atarian» sartuz eta han eskuragarri dauden inprimaki espezifikoak betez.

2. Eskaera orri normalizatuekin batera, honako agiri hauek ere aurkeztu beharko dituzte eskatzaileek:

Identifikazio fiskaleko txartelaren kopia.

Eskatzaileak irekitako kontu korronte baten jabetasuna ziurtatzen duen agiria, banketxe edo aurrezki erakunde batek emana. Agiri hori aurkeztu beharko da, bakar-bakarrik, dirulaguntza bat lehenengo aldiz eskatzen denean edo kontuaren ezaugarriak aldatu direnean.

Dirulaguntzaren lerro bakoitzari dagokion oinarri espezifikoen berariazko eranskinetan kasu bakoitzerako adierazitako dokumentazioa, eskaera motaren arabera.

Adingabeekin ohiko kontaktua izatea eskatzen duten proiektuak direnean, dirulaguntza eskatzen duen entitateak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du, non egiaztatuko duen lan horiek egingo dituzten langile guztiek, boluntario gisa aritzen direnak barne, badutela 1/1996 Lege Organikoak, urtarrilaren 15ekoak, Adingabearen Babes Juridikoari buruzkoak, 13.5 artikuluan eskatutako ziurtagiri negatiboa.

3. Eskaera eta harekin joan behar duen dokumentazio osagarria internet bidez aurkezterakoan, foru araudi hauek bete

cas que hayan de realizar la actividad que fundamenta su otorgamiento o que se encuentren en la situación que legitima su concesión, según se establece en cada uno de los anexos de bases específicas.

2. Las entidades solicitantes deberán cumplir los requisitos que se contemplan en el anexo correspondiente de entre los que acompañan a estas bases generales, y no incurrir en ninguna de las prohibiciones para obtener la condición de beneficiaria previstas en los apartados 2, 3 y 4 del artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y en el artículo 26 de la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres.

3. La acreditación de no incurrir en las prohibiciones para obtener la condición de beneficiaria de las subvenciones podrá realizarse mediante la presentación de una declaración responsable que se acompañe a la solicitud de subvención, según modelo que facilite la Dirección General de Juventud y Deportes del Departamento de Cultura, Turismo Juventud y Deportes de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

En todo caso, para acreditar el cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social, la entidad interesada deberá aportar los correspondientes certificados emitidos por los órganos competentes; o, en su lugar, podrá autorizar expresamente la cesión de dicha información por parte de los citados órganos directamente al Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes.

No obstante, cuando se trate de subvenciones destinadas a las entidades locales, la presentación de la declaración responsable a la que se hace referencia en el párrafo primero del presente apartado, sustituirá a la presentación de las certificaciones de acreditación del cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social, todo ello de conformidad con lo establecido en el artículo 11.5 del Reglamento de la Norma Foral de Subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, aprobado por Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril.

*3. Forma y plazo de presentación de las solicitudes de subvención.*

1. De conformidad con lo dispuesto en el artículo 14.2 a) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, las solicitudes, junto con el resto de documentación que deba acompañarlas, deberán presentarse exclusivamente en el Registro electrónico de la Diputación Foral de Gipuzkoa (https://egoitza.gipuzkoa.eus), accediendo al «portal de subvenciones» y cumplimentando los formularios específicos disponibles a estos efectos.

2. Junto con los impresos normalizados de solicitud, las entidades solicitantes deberán aportar los siguientes documentos:

Copia de la tarjeta de identificación fiscal.

Documento expedido por una entidad bancaria o de ahorro que certifique la titularidad de una cuenta corriente a su nombre. Este documento sólo será necesario presentarlo cuando se solicite una ayuda por primera vez o hayan variado las circunstancias de la cuenta.

La documentación señalada en cada caso, en los respectivos anexos de bases específicas correspondientes a cada línea de subvención, en función del tipo de solicitud.

Cuando se trate de proyectos cuyo desempeño implique contacto habitual con menores, la entidad solicitante de la subvención deberá aportar una declaración responsable de que todo el personal al que corresponda la realización de esas tareas, incluído el personal voluntario, cuenta con el certificado negativo exigido en el artículo 13.5 de la Ley Orgánica 1/1996, de 15 de enero, de protección jurídica del menor.

3. La presentación de la solicitud y de la documentación complementaria vía internet, se realizará en los términos previs-

behar dira: 23/2010 Foru Dekretua, irailaren 28koa, Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoen erabilera arautzen duena, eta 03-131/2011 Foru Agindua, abenduaren 30ekoa (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala 10 zk., 2012ko urtarrilaren 16a), zeina aldatu baitzuen 03-025/2014 Foru Aginduak, otsailaren 17koak (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala 37. zk., 2014ko otsailaren 25a), Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuko dirulaguntzei buruzko espedienteen hainbat tramite bitarteko elektronikoen bidez egiteko obligazioa arautzen duena.

4. Deialdi bakoitzaren informazioa eta eskaera orri normalizatuak eskuragarri egongo dira Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan (https://egoitza.gipuzkoa.eus) eta Kirol Zerbitzuaren www.gipuzkoakirolak.eus web orrian. Halaber, eskaera orriak deialdiarekin batera eskuragarri egongo dira.

5. Eskaerak aurkezteko epea urteroko deialdian ezarriko da.

6. Erakunde eskatzaileek ez dituzte jada Gipuzkoako Foru Aldundiak badituen dokumentuak aurkeztu beharko, hala xedatzen baitu 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 53.1 d) artikuluan, baldin eta dagokion prozedura amaitu ondoren ez badira bost urte baino gehiago iragan. Eskaera orrian zein organoren aurrean edo bulegotan eta noiz aurkeztu ziren edo, hala badagokio, jaulki ziren, adierazi beharko da.

*4. Akatsak zuzentzea eta dokumentazio osagarria aurkeztea.*

Eskaerak edo horrekin batera doan dokumentazioak ez baditu identifikazio datuak biltzen, akatsen bat badu edo zerbait falta bada, eskatzaileari eskatuko zaio, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, 68.1 artikuluan ezarritakoari jarraiki, hamar eguneko epean akats horiek zuzentzeko; eta adieraziko zaio, hori egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, aipatu legearen 21.1 artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuak eskaera ebaluatu eta erabakia hartzeko beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio eta informazio osagarri oro eskatu ahal izango dio eskatzaileari.

*5. Emateko prozedura.*

Dirulaguntzak elkarrekiko norgehiagokako prozeduraren nahiz lehiarik gabeko prozeduraren bidez emango dira, oinarri espezifikoen eranskinetan adierazten denaren arabera.

Emakida prozedura ofizioz hasiko da organo eskudunak onetsitako deialdiaren bidez, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

*6. Balorazio irizpideak.*

Dirulaguntzen eskaerak baloratzeko irizpideak oinarri orokor hauekin batera doazen eranskinetako oinarri espezifikoetan dirulaguntza mota bakoitzarentzat ezarritakoak izango dira.

Balorazio irizpideak aplikatu ostean, dirulaguntza hauek emateko baimendutako kredituak ez baditu estaltzen dirulaguntza guztiak, eta dirulaguntzak emateko prozedura norgehiagokakoa bada, aipatutako kreditua proportzionalki hainbanatuko da entitate onuradunen artean, bakoitzak lortutako puntuen eta ezarritako mugen arabera.

*7. Finantzaketa.*

1. Hala badagokio, eman daitezkeen dirulaguntzak deialdiaren urteko Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontu Oro-

tos en el Decreto Foral 23/2010, de 28 de septiembre, por el que se regula la utilización de medios electrónicos en el ámbito de la Administración Foral, y en la Orden Foral 03-131/2011, de 30 diciembre, (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 10, de 16 de enero de 2012), modificada por la Orden Foral 03-025/2014, de 17 de febrero (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 37, de 25 de febrero de 2014), por la que se regula la obligación de realizar por medios electrónicos determinados trámites de los expedientes de subvenciones del Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes.

4. La información de cada convocatoria y los impresos normalizados de solicitud estarán disponibles en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa (https://egoitza.gipuzkoa.eus) y en la página web del Servicio de Deportes (www.gipuzkoakirolak.eus). Asimismo, los impresos de solicitud estarán disponibles junto con la convocatoria.

5. El plazo de presentación de solicitudes se fijará en la convocatoria anual.

6. Las entidades solicitantes no estarán obligadas a presentar los documentos que ya obren en poder de la Diputación Foral de Gipuzkoa, de conformidad con lo previsto en el artículo 53.1 d) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, siempre que no hayan transcurrido más de cinco años desde la finalización del procedimiento al que correspondan. Deberán indicarse en el impreso de solicitud la fecha y el órgano o dependencia en que fueron presentados o, en su caso, emitidos.

*4. Subsanación y documentación complementaria.*

Si la solicitud o la documentación que debe acompañarla no reunieran los datos de identificación, adolecieran de algún error o fueran incompletas, se requerirá a la entidad solicitante, de acuerdo con lo establecido en el artículo 68.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, para que, en el plazo de diez días, subsane los defectos detectados, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, en los términos previstos en el artículo 21.1 de ese mismo texto legal.

El Departamento de Cultura, Turismo Juventud y Deportes de la Diputación Foral de Gipuzkoa podrá requerir a las entidades solicitantes cuanta documentación e información complementaria considere necesarias para la adecuada evaluación y resolución de la solicitud presentada.

*5. Procedimiento de concesión.*

El procedimiento de concesión de las subvenciones será bien el de concurrencia competitiva, bien el de concurrencia no competitiva, según se señala en los correspondientes anexos de bases específicas.

El procedimiento de concesión se iniciará de oficio, mediante convocatoria aprobada por el órgano competente publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

*6. Criterios de valoración.*

Los criterios de valoración de las solicitudes de subvención serán los que se señalan en las bases específicas de los anexos que acompañan a estas bases generales para cada modalidad de subvención.

En el caso de que, una vez aplicados los criterios de valoración, el crédito autorizado para el otorgamiento de estas subvenciones no alcanzase para cubrir todas las resultantes, si el procedimiento de concesión de las subvenciones fuera el de concurrencia competitiva, dicho crédito se prorrateará proporcionalmente entre todas las entidades beneficiarias de conformidad con los puntos obtenidos por cada una de ellas y los límites establecidos.

*7. Financiación.*

1. Las subvenciones que, en su caso, puedan otorgarse se financiarán con cargo a los Presupuestos Generales del Territo-

korren kargura finantzatuko dira. Deialdiak ezarriko du dirulaguntzak aurrekontuko zein kredituren kargurakoak izango diren.

2. Oinarri hauen xede diren dirulaguntzak helburu bereko beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin bateragarriak izango dira, edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk emandakoekin, estatukoak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeenak izanda ere, horren inguruan beste dirulaguntzak arautzen dituzten araudiek ezar dezaketenaren kalterik gabe.

3. Oinarri hauetan araututako dirulaguntzen zenbatekoak ezin du inola ere gainditu diruz lagundutako jardueraren kostua, ez berak bakarrik, ez beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera.

4. Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan edozein aldaketa gertatuz gero, eta nolanahi ere, oinarri hauetan baimendutako kasuez kanpo dirulaguntza hauekin batera laguntzak jasoz gero, dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea gerta daiteke.

*8. Dirulaguntzen zenbatekoa.*

Dirulaguntzaren zenbatekoa eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioaren arabera finkatuko da: aurrekontuan erabilgarri dagoena eta oinarri orokor hauekin batera doazen oinarri espezifikoetan laguntza lerro bakoitzarentzat zehaztutako balorazio eta kuantifikazio irizpideak kontuan izanda.

*9. Prozedura antolatu eta bideratzeko eskumena duten organoak.*

1. Dirulaguntza horiek emateko prozedura bideratzea Gazteria eta Kirol Zuzendaritza Nagusiko pertsonal teknikoari egokituko zaio.

2. Eskaerak Gazteria eta Kirol Zuzendaritza Nagusiko teknikariek aztertuko dituzte; eta, balorazio txostena egingo dute. Txosten hori dirulaguntza modalitate bakoitzerako eratuko den Batzorde Ebaluatzaileari igorriko zaio, egindako ebaluazioaren emaitza zehaztuko duen ebazpen proposamena egin dezan; eta, ondoren, eskumena duen organoari aurkeztuko zaio, onar dezan.

Batzorde Ebaluatzaileko kide izango dira Gazteria eta Kiroleko zuzendari nagusia (batzordeburu izango da); Kiroleko zerbitzuburua; zerbitzu horretako teknikari bat; eta Ogasun eta Finantza Departamentuko Kontu-hartzailea eta Auditoretza Zerbitzuko teknikari bat.

*10. Dirulaguntzak emateko ebazpena.*

1. Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuko foru diputatua izango da oinarri hauetan bildutako dirulaguntzak ematea ebazteko eskumena duena.

2. 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearenak, 45.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, deialdiaren ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du; eta jakinarazpena egintzat joko da eta lege ondorioak izango ditu ebazpena argitaratu eta biharamunetik.

3. Orokorrean, behar den ebazpena eman eta argitaratu edo jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da; epe hori dagokion deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aurrera kontatuko da.

C.1. eranskinean jasotako dirulaguntzen kasuan, ebazpena eman eta argitaratu edo jakinarazteko gehieneko epea bi hilabetekoa izango da; eta epe hori kontatzen hasiko da eskaerak egiteko azkeneko egunetik aurrera.

rio Histórico de Gipuzkoa del año de la convocatoria. La convocatoria establecerá los créditos presupuestarios con cargo a los cuales se financiarán las subvenciones.

2. Las subvenciones objeto de las presentes bases serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes públicos o privados, estatales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, sin perjuicio de lo que al respecto pudiera establecer la normativa reguladora de las otras subvenciones concurrentes.

3. El importe de las subvenciones reguladas en estas bases en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

4. Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, y en todo caso la obtención concurrente de otras aportaciones fuera de los casos permitidos en las presentes bases, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión.

*8. Cuantía de las subvenciones.*

El importe de la subvención se fijará con arreglo a la documentación aportada por la entidad solicitante, teniendo en cuenta las disponibilidades presupuestarias y los criterios de valoración y cuantificación definidos para cada línea subvencionable en las bases específicas que acompañan a estas bases generales.

*9. Órganos competentes para la ordenación e instrucción del procedimiento.*

1. La instrucción del procedimiento de concesión de las subvenciones cuya concesión es objeto de las presentes bases generales corresponderá al personal técnico de la Dirección General de Juventud y Deportes.

2. Las solicitudes serán analizadas por el personal técnico de la Dirección General de Juventud y Deportes, quien elaborará un informe de valoración de las mismas; dicho informe será sometido a la Comisión Evaluadora, que emitirá una propuesta de resolución en la que se concretará el resultado de la evaluación efectuada, y que será elevada al órgano competente para su aprobación.

Formarán parte de la Comisión Evaluadora la directora o director general de Juventud y Deportes, que presidirá la misma; el jefe o jefa del Servicio de Deportes; un técnico o una técnica de dicho servicio; y una técnica o un técnico del Servicio de Intervención y Auditoría del Departamento de Hacienda y Finanzas.

*10. Resolución de concesión.*

1. El diputado o diputada foral del Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes será el órgano competente para resolver la concesión de las subvenciones contempladas en estas bases.

2. Al amparo de lo dispuesto en el artículo 45.1.b) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la resolución de la convocatoria será objeto de publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, sustituyendo dicha publicación a la notificación individual y entendiéndose efectuada ésta a todos los efectos legales desde el día siguiente a dicha publicación.

3. Con carácter general, el plazo máximo para dictar y publicar o notificar la resolución que corresponda será de seis meses. El plazo se computará desde la publicación de la correspondiente convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

En cuanto a las subvenciones contempladas en el anexo C.1, el plazo para dictar y publicar o notificar la resolución será de dos meses, que se computará desde el último día para la presentación de solicitudes.

EK\CV GAO-I-2019-01312

Edonola ere, dagokion epea amaitutakoan ez bada ebazpena jakinarazi edo argitaratu, eskatzaileek eskaera ezetsitzat joko dute, administrazioaren isiltasunagatik.

*11. Entitate onuradunen betebehar eta konpromisoak.*

1. 3/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren dirulaguntzei buruzkoak, eta oinarri orokor hauekin batera doazen eranskinetako oinarri arautzaile espezifikoetan jasotako dirulaguntza mota bakoitzean ezarritako betekizunez gain, entitate onuradunaren betebeharrak dira bereziki hauek:

a) Gazteria eta Kirol Zuzendaritza Nagusiak deitzen dituen bileretan parte hartzea, horretarako ahalik eta parte hartzerik handiena egon dadin beharrezko bide eta bitartekoak ezarriz.

b) Gipuzkoan eskola kiroleko esparruan indarrean diren arauak gordetzea, baita Gipuzkoako Foru Aldundiak eta kirol modalitate bakoitzeko laguntza teknikoaren ardura duten erakundeen artean eskola kiroleko programak garatzeko egindako hitzarmenak ere.

c) Dirulaguntza emateko aintzat hartu den proiektua gauzatzea, jarduera egitea edo jokaera hartzea.

d) Dirulaguntza ematen duen organoaren aurrean egiaztatzea baldintzak betetzen dituela, eta dirulaguntza emateko oinarrian izan den jarduera egin duela edo helburua bete duela.

e) Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan xede horretarako eskura jarri diren bitartekoak soilik erabiliko dira prozedurari dagokion edonolako izapideak egiteko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuarekin, emandako dirulaguntzen justifikazioa barne.

f) Dirulaguntza eman duen organoak egiten dituen ikuskatze lanak onartzea, baita kontrol organo eskudunek egin ditzaketen egiaztapen eta finantza kontrolak ere, aurreko zeregin horietan eskatuko zaien informazio oro emanez.

g) Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuk lortu izanaren berri ematea dirulaguntza ematen duen organoari. Jakinarazpen hori ahal bezain laster eman behar da aditzera, eta betiere jasotako dirulaguntzaren erabilera egiaztatu aurretik.

h) Entitate onuradunari indarrean diren arauetan kasu bakoitzean eskatzen zaizkion kontabilitate liburuak, erregistro diligentziatuak eta gainerako dokumentuak izatea, baita dirulaguntza mota bakoitzaren oinarri espezifikoetan eskatzen diren kontabilitate egoerak eta erregistro bereziak ere, egiaztapen eta kontrol ahalmenak era egokian beteko direla ziurtatzeko.

i) Jasotako dirulaguntzen erabilerari buruzko egiaztagiriak gordetzea, egiaztapen eta kontrol ahalmenen gai izan daitezkeen heinean.

j) Euskadiko Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea diruz lagundutako jarduera eta programen inguruko adierazpen guztietan. Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere organismo autonomoen jarduera esparruan Euskararen erabilera normalizatzeko planaren arabera, eta kontuan hartuta euskararen erabilera normalizatzeko 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, dirulaguntzak jasotzen dituzten pertsona edo entitateek euskara erabili beharko dute diruz lagundutako jarduerekin lotuta dauden agerpen publiko orotan.

k) 4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzkoak, xedatutako printzipio orokorrak betetzea bere jardueretan, bereziki hurrengo alderdiei da-

En todo caso, transcurrido el correspondiente plazo sin haberse notificado o publicado la resolución, las entidades interesadas podrán entender desestimada su solicitud por silencio administrativo.

*11. Obligaciones y compromisos de las entidades beneficiarias.*

1. Son obligaciones de las entidades beneficiarias, además de las que puedan derivarse de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa y de las bases reguladoras específicas de cada línea de subvenciones recogidas en los anexos que acompañan a las presentes bases generales, especialmente las siguientes:

a) Participar en las reuniones que convoque la Dirección General de Juventud y Deportes, para lo que se establecerán los cauces y medios necesarios que faciliten la máxima participación.

b) Respetar la normativa sobre deporte escolar vigente en Gipuzkoa, y los acuerdos alcanzados entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y las entidades encargadas de la asistencia técnica de cada modalidad en orden al desarrollo de los programas de deporte escolar.

